

ADIERAZLEAK

ESPAZIOAREN ANTOLAKETA

Antolatu espazioa gelan sortuko dituzun elkarrekintza egoera ezberdinen arabera

Nolako elkartrukeak sortu nahi dira? Formalak? Ez-formalak?

Nola kokatuko dira ikasleak (eta irakaslea) jarraibideak entzun eta sortuko diren zalantzak argitzeko? Edo, ikasleek elkarri esaten dietena hobeto aditzeko? Edo...

ALDEZ AURRETIK PRESTATU

- Irakaslearen kontsigna entzun eta sortuko diren zalantzak argitzeko...
- Bakarka lan egiteko, ariketak egiteko, taldeka aritzeko...
- Ikasleak elkarri azalpenak emateko
- Erabaki ezberdinak adosteko...
- Ariketen emaitzak zuzentzeko...



HORTAZ, AUKERATU

- Borobilean/ U moduan / aurrera begira ilaratan / parez pare jarrita...
- Banaka / binaka / hirunaka / talde handiagoetan...
- Eserita / zutik / irakasleari begira mahaietan / lurrean kokatuta...
- Ondoko gela batean / espazio berri baten / gorputz hezkuntzako gelan...

ERABAKI UNE BAKOITZEAN

Zein izango den irakaslearen parte hartze maila

zenbat hitz egingo duen, zertarako parte hartuko duen, zein unetan egongo den isilik...

Zein izango den ikasleen parte-hartze maila

ikasle jakin batzuen (irakasleak aukatzen duenean...) partaidetza (zer esango duten edo eskatuko zaien esateko, nola esango duten...).

Zein arau finkatuko diren parte hartzeko

eskuak altxatuta, lehenik taldetan eta gero taldeko ordezkariak, zerrendaren arabera, izendatuz, borondatezko partaideak proposatuz, txandakatuz... ahalegindu partaideak ezberdinak izan daitezen.